

Martxoak 9: NATURA EGUNA

Martxoaren 9an **Natura eguna** ospatuko dugu San Martzialen. Aurten Bergarako Eraztun edo Gerriko Berdea izango da protagonista.

Martxoak 9an Gerriko Berdea ezagutzera etortzeko eta eremu hau hobetuko duen landaketan parte hartzeko gonbitea luzatzen dizugu. Zatoz!

Egitaraua



10:00 San Martzialera igoera, **OINEZ**, azoka paretik hasita. Igoeran, Amaia Arriaran ipuin kontalari bergararra izango dugu gidari. Amaiak ibilbideko elementuetan oinarritutako ipuin kontaketa egingo du.

10:00 San Martzialera igoera mendiko bizikletan, Agorrosin ekintza gunetik abiatuta, **MENDIKO BIZIKLETAN**. Lokatza Ziklismo Eskolako txirrindulariak izango dira igoera honetako gidariak. Ibilbidean zehar, bizikleta-jolasak eta hainbat konponketa teknika ikasteko gelditzen joango dira.

11:45 Zuhaitz Landaketa

12:15 “Hamarretakoa” elizpean. Han bertan, Gerriko Berdean Udala diharduen lanen aurkezpena egingo da eta baita 2013ko Korrikari dagokiona. Natura egunari amaiera emateko Amaia Arriaran ipuin kontalariak euskarari lotutako ipuina kontatuko digu.

12:45 Itzulera, oinez edo bizikletan.

San Martzialen Natura eguna

BERGARAKO GERRIKO BERDEA



MARTXOAK 9 LARUNBATA



BERGARAKO GERRIKO BERDEA

Zer da Gerriko Berdea? Natura kontserbatzeko eta aisialdirako, herriaren inguruan sortutako eremu berezi bat da. Gerriko Berdea eta ez da berehala sortu daitekeen zerbait, urtez urte zehazten eta egiten joan behar den zerbait baizik.



Goiauzoan

Zergatik Gerriko Berdea Natura egunaren protagonista? Azken urte hauetan Gerriko Berdea egiten joateko lanak ezagutzera eman nahi ditugulako:



San Martzial leizea

Aisialdiaren arloan: **SL-Gi38** Gerriko Berdearen Bira izeneko zidorra prestatu dugu, Bergarako hiriguneari buelta osoa ematen diona.

Biodibertsitatearen kontserbazioaren arloan: **3** lursail erosi ditugu San Martzial inguruan, natura kontserbatzeko, basoa babesteko eta hariztia berreskuratzeko. Lleize zulo bat babesten ari gara ere, arriskua saihesteko – oso arriskutsua da- eta leizeko habitata ere gordetzeko (lurrazpiko leize eta kobak legez babestuta daude). **Landare exotiko inbaditzaileak kentzen** ari gara ere.

BASOA BERRESKURATZEN

Natura egunean haritzak, sagarminak, gorostiak, basa erramuak eta beste zuhaitz eta zuhaixka batzuk landatuko ditugu San Martzialen, erositako lursail berrietan bertako basoa berreskuratzeko.

Landatuko ditugun espezie batzuk babestuta daude eta Gerriko Berdean sustatu egingo ditugu. Landaketarekin, gainera, Bergarako herri lurretan bertako basoen azalera handituko dugu, hemengo biodibertsitatea kontserbatzeko.



**ZATOZ BASOA
LANDATZERA!**